

Maddi Urdangarin Ollo

A maila • 3 saria

Neure burua aurkezteko eskatu didate, eta hemen nauzue, ispiluari so, pentsakor, nor naizen guztiz argitu ezinik.

Geure buruari askotan egin izan dizkiogun galderek lausotzen didate gogoa, eta eskuak aurpegira eramaten ditut errealitatearen eta ametsaren muga fin hori aurkitu nahian. Aitortu behar dut ez dela erraza, eta askotan, oharkabeen gainera, nahiago izaten dugula errealitateari bizkarra eman, baita, apika, neuk ere. "Looking for paradise" ipuinak, ordea, leku eta momentu desegokian bizi izandako mutil baten bizipenetan oinarrituta, norbanakoak errealitate krudelaren aurrean zer nolako barne indarra izan dezakeen islatu nahi du. Asko dira, Naymen antzera, mundu bidegabe honetan bizitzen ikasi ez dutenak, eta baita protagonistaren antzera, aurrera egin eta zoriontsu izatera iritsi direnak ere. Beraz, nik, Maddi Urdangarin Ollok, bigarren batxilergoko Txindoki institutuko ikasleak, ispiluaren aurrean eta errealitateari parez pare begira, bidegabekerien eraginez joan direnen memorian eskaintzen dizkizuet, zuei guztioi, ondorengo lerroak.



LOOKING FOR PARADISE

I. Esplikaezinaren teorema

"Demagun ez dagoela herriaderik
Demagun ez dagoela erail edo hiltzeko,
ez arrazoirik, ez erlijiorik.
Demagun jende guztia
bakean bizi dela, bat eginik"- John Lennon, Imagine

Bizitzak zenbait erabaki hartzera behartzen gaitu, eta baita, beraz, erabaki orok darkarzkigun on-dorioei aurre egitera ere, izan onak edota izan txarrak. Betidanik pentsatu izan dut bizitzak ez gaituela gu guztioak berdin tratatzen, eta bidegabea dela, zoritxarrez, gutxien merezi dutenekin. Desoreka horiei arrazoia ematen saiatzen gara maiz, eta erlijioa dugu horretarako tresna. Jainkoaren indarra aitzakia gisa erabilia, geure burua erruduntasunetik babesten dugu, ekintzen erantzule nor-banakoa ez dela zuzitzeko. Nik, ordea, ez dut erlijioan sinesten, eta beste teorema bat dut: gauza guztiek ez dutela zertan izan zergatirik, eta ia dena patuaren kontua dela.

II. Bizitzaren gidoia

“ Bi modu besterik ez daude bizitza bizitzeko. Bata ezer ez dela mirari pentsatzea. Eta bestea , ordea, dena dela mirari pentsatzea.” Albert Einstein

1966ko apirilaren 25ean jaio nintzen Paristik 20 bat minutura dagoen herri txiki batean. Hautzaro ona izan nuela dut gogoan. Eskolara joatea gogoko nuen, eta baita piano klaseetara joatea ere. Fa-milian bost ginen: gurasoak, anaia bikiak eta ni. Ez ginen dirudunak, baina hala eta guztiz ere, zo-riotsu ginen beharrak asetzeko adina bageneukalako. Ez genuen ezer gehiago behar, zertarako gainera?

Ikusten dugun horretatik ikasten omen dugu, eta nik 18 urte besterik ez nuela, etxetik joatea erabaki nuen, medikuntza ikasketak egiteko asmotan. Aita medikua nuen, eta txiki-txikitatik erakutsi zidan zer nolako onurak dakartzan bizitzak salbatzeak. Aita heroitzat dut. Bizitza ugari salbatu zituen; bai, mediku ona zen, baina baita gizon paregabea ere. Bizitza zorigaiztokoa da merezi ez dutenekin. Gazteegia zen munduari agur esateko, oraindik bazuen munduari zer irakatsi. Baina, horrelakoa zen bizitza, hain atsegina batzuetan eta hain zitala besteetan. Aurrera egitea beste aukerarik ez ge-neukan, eta amak hartu zuen gauza guztien kargua.

Aita hil eta berehala, medikuntza ikasi nahi nuela esan nion amari; nik erakutsiko niola munduari hark erakusteko denborarik izan ez zuena, berarengatik, eta baita nirengatik ere.

III. Diru gosea

“Bakeak aberastasuna dakar; aberastasunak urguiluak; urguiluak, gerrak dakartza; gerrak, lazeria; lazeriak, apaltasuna; eta apaltasunak bueltan dakar berriz ere bakea.”

Geller von Keyzers-berg

Aitak erakutsi zidan boterea oso arriskutsua suerta dakiokela edonori. Mundu lehiakorra da gurea, eta, jakina, besteak baino hobeak izan ahal izateko, daukaguna baino gehiago nahi izaten dugu maiz. Baina, zerrenda amaiezin horrek eromena ekar diezaguke azkenerako, beti egongo baita guk ez daukagun eta amesten dugun hori. Arazoa, ordea, ez da gure lagunek baino zapata ederragoak nahi izatea edota kotxe berri bat erostea, baizik eta, agintea xede desegokietarako erabiltzea; hots; gainontzeko herritarren sufrimenduaz baliatuta, norbanakoaren onurak soilik lortzeko balio duten ekintzetarako erabiltzea boterea. Askotan, edo ia gehienetan esan beharko, zoritxarrez, boterea diru gosea duten berekoi handizaleen eskuetan erortzen da, eta horientzat, besteen sufrimenduak garran-tzirik ez duenez, gerrak sortzen dituzte beraiek nahi duten hori lortu ahal izateko.

Argi dut zorionekoa izan nintzela, jaio nintzen garaian Frantzian gerrarik izan ez zelako, eta bakean bizitzeko aukera izan nuelako- behintzat errealitatea nolakoa zen ezagutu nuen arte-, baina zer pasa-tuko zatekeen beste nonbait jaio izan banintz? Zer jazoko zitzaidakeen Jade Bélanger izeneko nes-ka frantziar bat izan ordez, garatu gabeko herrialde bateko biztanle soil bat izan banintz? Bizitzan aurrera jarraitzeko aukerarik izango al nukeen?

III. Ene buruan

“Oraindik ere borrokan dabilta
beraien tanke eta lehergailuekin
beraien lehergailu eta pistolekin
zure buruan, zure buruan
bueltan da heriotza” - Zombie, The Cranberries

PUM PUM PUM

Fusil hotsa nagusitu zen herrian. Aitak etxeko leiho eta ate guztiak itxi eta eskaileretatik behera zegoen satora joateko agindu zigun arreba eta bioi. Ziztu bizian joan ginen aitak esandako lekura, ezer hartzeko astirik gabe. Zer gerta zekigukeen beldur ginen, izan ere, jakin bagenekien gerrek ez zekartela ezer onik, ez behintzat gu bezalako herritar xumeei.

Hurrengo gertakizunak lauso ditut, azkarregi gertatu baitziren. Bi gizon etxera sartu ziren, eta aita hil egin zuten, edo hori da behintzat tiro eta oihu hotsek adierazi zigutena. Ondoren, satora jaitzi ziren, eta harrapatu egin gintuzten nahiz eta ustez ondo ezkutatuta geunden. Besoetan hartu, eta esaten zutena egitera behartu gintuzten; niri, ordea, bost axola zitzaidan, izan ere, hilak 22 zituen egun eguzkitsu hartan galdu nuen aita.

50 kilometrora zegoen kontzentrazio esparru batera eramán gintuzten, eta bertan, arrebarengandik banandu ninduten. Bakarrik nengoen, inongo babesik gabe, eta txikiegia nintzen horri aurre egiteko.

IV. Iluntasunarekin itsututa

“Herri ikustezin hontan itzalekin jolasten
neu izaten saiatzen
geroa margozten
nire ezintasun denak
behin da berriz kantatzen
egunsentia
bide hau sentitzen” Zapalduen POESIA, Ken Zazpi

Luzea izan zen gerra, gogorra. 8 urtez eduki gintuzten bertan, sufrimendua lagun, mezulari lanetan. Ni bezalako mutil gazte askok eta askok utzi egin behar izan gintuzten, ez baitzuten aurrera jarrai-tzeko nahikoa indarrik, eta ni horren ikusle nintzen. Egunero-egunero izaten zen heriotzaren bat, bide horrek mundu hobe batera eramango zituztelako ustean. Guk, ordea, bizirik geundenok, ezine-gona sentitzen genuen, barnean generaman esperantzaren sugar txiki hori itzaltzen joaten zelako poliki-poliki hildako bakoitzeko.

Herioa inguruan geneukan egun haietan, gutako norbait bere hatzaparretan noiz eroriko. Nik gogor, tinko, aurre egin nion, bizitzak oraindik ere gauza onak emago zizkidala pentsatzen bainuen. Nire lagun minak ordea, alde egin nahi zuen, aske izan nahi baitzuen segundo bakar batez bakarrik bazen ere, eta txoriek bezala hegan egin, bizimodu hartatik ihes egiteko.

Gauero-gauero, nire lagunaren falta ez sumatzeko, zerura begiratzen nuen. Izarrak aske ziren, zeru-ko iluntasunean, dir-dir. Itxaropena zen hori niretzat. Naym etortzen zitzaidan orduan burura, berak ez baitzuen eta jakin mundu bidegabe hartan bizitzen. Nik, ordea, malkoak masailetik barrena ni-tuenean, zin egiten nion indartsua izango nintzela eta ahal nuen guztia egingo nuela berak galdu zuen hori ez galtzeko: esperantza.

V. Bidezidorraren amaieran

«Aequam memento rebus in arduis servare mentem».

“ Saiatu gogoaz lasai mantentzen momentu zailenetan ere”.

Harro nago, harro nire buruaz eta lortu nuenaz. Dena galdu nuen, eta bakarrik geratu nintzen, inon-go babesik gabe. Baina, aurrera egitea lortu nuen, eta bizitza nire alde jarri zen. Naym hil eta bi hilabetera gerra amaitutzat eman zuten, eta garaile irten ginen.

Ez nekien nora joan, ez neukan familiarik eta ezta etxerik ere, gerrak denak suntsitu baitzituen. Be-raz, noraezean, arrebaren bila pasatu nituen gau eta egunak, noizbait aurkituko nuelakoan.

Bost urte igaro dira eta ez dut arreba aurkitu, baina, zoriontsua naiz. Aitaren eta arrebaren oroitza-penak beti izango ditut gogoan, eta irribarre batez gogoratuko ditut. Ez dut, ordea, iraganean harra-patuta geratu nahi, ez dut gehiago sufritu nahi. Orain, nire garaia da, familia berriaz gozatu dut, be-tiere, noski, nondik natorren ahaztu gabe; izan ere, ama berriaren arabera, iraganak dakar oraina, eta orainak etorkizuna. Eskerrak eman nahi dizkiot, beraz, bizitzari, Jade Bélanger izeneko mediku frantziarra nire ospitaleko ohe ertzean esertzeagatik, nire begi tristeei so. Nire lagun Naymek beza-laxe, esperantza galdua nuen, ez neukan zeri eutsi bizitzan aurrera egin nezan, eta amore ematea erabaki nuen. Orain, ordea, konturatzen naiz gerrek ere badakartela onik, eta horiengatik izan ez balitz, sekula ez nukeela ezagutuko oraingo nire familia, eta ez nintzatekeela orain naizena izango. Ez dakit ziur zergatik, baina nire barrenean sentitzen dut, bide zaila eginagatik, nahi nuen lekura ekarri nauela patuak.